



**GAIA: EGUESIBARKO EMAKUMEEK ETA GIZONEK LANEKO, BIZITZA PERTSONALEKO ETA FAMILIAKO EGINKIZUNAK BATERA ERAMATEA XEDE DUEN TOKIKO ITUNA: TOKIKO SAREAREN PRESTAKUNTZA, SENTIBERATZE ETA LAN SAIOAK**

**SARRERA:**

Laneko eta familiako eginkizunak batera eramateko tokian tokiko itunen (THxB) ereduaren oinarria da Nafarroako Berdintasunerako eta Familiarako Institutuak tokiko entitateendako eta udalez gaindiko erakundeendako egiten duen deialdia. Izan ere, deialdiaren xedea da entitate horiek THxB itunetan parte hartzea, beren ingurunean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko. Eguesibarko Udalaren asmoa da Ituna abiatzea.

Ituna egiteko prozesua errazteko, HARREMANETAN SARTZEKO LEHENBIZIKO SAIOA 2019ko abuztuaren 27an egin zen, 11:30etik 14:30era, Udaleko Batzorde Gelan (Sarriguren). Atxikitzen dizuegu artxiboa, saioan aurkeztu zen dokumentuarekin batera.

Lehenbiziko saioan egoterik izan ez zenutenok gonbidaturik zaudete hurrengo datetan egingen ditugun EGUESIBARKO KONTZILIAZIORAKO TOKIKO ITUNAREN SAREAREN PRESTAKUNTZA ETA SENTIBERATZE bi saioetara eta LAN SAIOA.

	EDUKIAK
<p><b>PRESTAKUNTZA SAIOAK 1. ETA 2. GAIA LANTZEKO</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li><b>Irailaren 5ean, osteguna, 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara</b></li> </ul> <p>Goizeko edo arratsaldeko saioa hautatzen ahal duzue, baina bietara hobeki.</p>	<p>1. gaia:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Kontziliaziotik zaintzara: ekoizpen eta ugaltze harremanen aldaketarako kontzeptuak. Erantzunkidetasun eta osoko garapen eredu baterantz.</li> </ul> <p>2. gaia:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Bizitzaren denborak: erabilerak, banaketak, baliabideak, berrantolaketa, eta negoziazioa. Denbora banaketa zuzenerantz.</li> </ul>
<p><b>LAN SAIOA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li><b>Irailaren 6an, ostirala, 09:30etik 12:30era</b></li> </ul>	<p>Diagnostikoa eta eztabaida prestatzeko proposamena.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>o Udalerriaren ezaugarriak eta kontziliazio beharrak.</li> <li>o Egungo baliabideak</li> <li>o Lan programa baterako ideiak</li> </ul>

Ez ikaratu izen luzea eta formalia izateagatik, guztiok ederki ezagutzen dugu gai hura. Informazio gehiago: [https://www.navarra.es/home\\_es/Temas/Igualdad+de+genero/Politic+de+igualdad/Entidades/Pactoslocales.htm](https://www.navarra.es/home_es/Temas/Igualdad+de+genero/Politic+de+igualdad/Entidades/Pactoslocales.htm)

Parte hartu nahi izanez gero, igorri mezu bat Berdintasun Alorrera [igualdadberdintasuna@egues.es](mailto:igualdadberdintasuna@egues.es), edo, bestela, deitu 948 33 16 11 telefonora. Horrela, guztion artean Ituna garatzen lagunduko dugu.



Saioak hemen izanen dira:

- **Familiendako Arreta Zentroa (FAZ), Urbasa kalea, 129, 31621 Sarriguren Tel: 948 16 56 51**

**OHARRA:** kontziliazioa bermatzeko, Familiendako Arreta Zentroak ATSEDEN Zerbitzua eskainiko du 1 eta 10 urte bitarteko haurrendako (ibiltariak). Irailaren 3a, asteartea, baino lehen eskatu beharko duzu: [igualdadberdintasuna@egues.es](mailto:igualdadberdintasuna@egues.es)

NO GAPS PROJECT S.L. enpresako Magalí Martínez Solimán andreak emanen ditu prestakuntza eta aholkularitza (enpresak TRAVESÍAS POR LA IGUALDAD, S.L. zuen izena lehen, eta berdintasun eta genero politikez arduratzen den Nafarroako Institutuari eman zion laguntza teknikoa).

#### **PRESTAKUNTZAREN JASOTZAILEAK:**

Eguesibarko Udaleko teknikariak eta udalerriko edo komunitateko funtsezko eragile sozioekonomikoak: mota guztietako elkarteak, entitateak (kirol alorrekoak, aisialdikoak, soziokulturalak, merkataritza, ekonomia, etab.), alderdi politikoak, sindikatuak, hezkuntza eta osasun alorreko entitateak, etab.

Eguesibarko Udalak bere gain hartu du Ibarreko eragile sozioekonomiko batzuekin hitzarmen bat sinatzeko konpromisoa, horiekin lankidetzan laneko eta familiako eginkizunak batera eramateko estrategiak udal esparruan bultzatzeko.

#### **HELBURUAK:**

- parte-hartzaileei THxB egiteko laguntza ematea, hura sinatu arte.
- teknikariak, politikariak, genero alorrean udalerriko beste eragile batzuen ordezkariak hainbat gaitan prestatzea, ohartaraztea eta aholkularitza eskaintzea: generoa; komunitateko, laneko eta familiako eginkizunak batera eramatea; eta hitzarmena egiteko prozesua.

#### **METODOLOGIA:**

Proposatzen da laguntzea xede izanen duen behitik gorako prozesu azkarra erabiltzea, guztiok parte hartzeko modukoa. Horren bidez, etorkizuneko hitzarmenaren esparruko pertsonen prestakuntza eta aholkua emanen diegu: teknikariei bereziki, aldirka politikariei, eta udalerriko beste eragile batzuen ordezkariei. Azken finean, asmoa da laneko eta familiako eginkizunak batera eramateko Tokiko Ituna sinatzea.

Sarrigurenen, 2019ko abuztuaren 29an

Yuliana Anchundia Correia